



Legez kanpoko etxegabetze bat egiten saiatu ziren atzo Atxurín

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/11/2023

AZET etxebizitza sindikatuaren presioagatik eta bizilagunen babesari esker etxegabetzea gelditzea lortu zuten.

AZET etxebizitza sindikatuak jakinarazi duenez, Atxuriko (Bilbo) sindikatuko kideen Ollerias Bajas kaleko etxe batera sartzen saiatu ziren pertsona batzuk sarrailagile batekin, epailearen agindurik gabe. Gertatutakoa garatzen zen bitartean, bizilagun batek poliziari deitu eta hauek erantzun zioten "al tratarse de una ocupación" ez zirela bertaratuko eta hurrengorako "que [...] se lo piense dos veces". Hala ere, ez zen poliziaren beharrik egon, sindikatuaren presioari eta auzokideen babesari esker legez kanpoko etxegabetze saiakera hau gelditzea lortu zutelako. Era berean, sindikatuak ohartarazi zuenez kaleratze saiakera gehiago egon ahal dira.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/legez-kanpoko-etxegabetze-bat-egiten